



2014-11-12 - LAN OSASUNEN BILERA

Negoiazio kolektiboko batzarren moduan, Justizia Administrazioako Segurtasun eta Osasun bilerek ere ondokorako balio dute gehien bat: gu sumintzeko eta enegarrenez egiaztatzeko administrazioak ez duela lotsarik nahi beste lege urratzeko.

Alde positibo bakarra prebentzio teknikari berria ezagutzea izan zen; uzailean alde egin zuenaren ordezkia dugu hau. Nolanahi ere, Prebentzio Zerbitzuko arduradun lanpostuak bete gabe dirau. Hutsune hori beteta ere, prebentzio jardunak eskatzen dituen ahaleginak eta baliabideak hain handiak izanik, jakin badakigu **LAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA** Justizia Administrazioan segituko duela izaten bigarren mailako gaia eta, onenean ere, adabakiak besterik ez dituztela jarriko.

- Legea zuzenean urratzen ez dutenetan, hark agintzen dituen mugen artean geratzearekin konformatzen da saila. Horixe gertatzen da mailak eta neurketak eskatzen dituzten kontu guztietan. Ingurumen-baldintzekin lotura duten kexak (tenperatura, argiztapena, zarata...) ebazten dira arauak agintzen dituzten gehienezko eta gutxienezko mailak ez dituztela gainditzen esanez; horrek ekartzen dituen ondorio desatseginak, gutxi-asko jasangarriak dira (diskonfort esaten diote). Hala ere, hiru hiriburuetako **Auzitegi Patologia Zerbitzuan eta Laborategian** egunero erabiltzen diren formaldehido edo bestelako produktu arriskugarriekin ere gertatzen da; hor, **manipulazioan akatsen bat edo okerreko jarduna izatekotan, ondorioak larriak izan litezke.**
- Protokolo, argibide, jakinarazpen... mordoiloak sortzen duen burokrasia bilera guztietan mahairatzen da. Horrezaz gain, saileko beste langileek egin beharko lituzketen zeregin administratibo hutsek berezkoak diren betebeharretatik denbora kentzen diete prebentzio teknikariei. Zerbitzuak ez ditu behar besteko baliabideak -pertsonalak zein ekonomikoak-. Horren harira, **LABek salaketa jarri zuen irailean Lan Ikuskaritzan; oraingoz bakarrik dakigu tiradera batean dagoela zain. Han ere badiote langile gutxi daudela. Hau desastre hau!**
- **Autobabesa eta larrialdiko planak eguneratu gabe daude**, batzuk 2007tik. Hau edonon larririk bada, areago Auzitegi Patologia zerbitzuak eta laborategiak dauden eraikinetan. **Arazo potolo honi nola heldu aztertzen gaude.**
- Hainbatetan, seguritatea eta osasuna babesteko neurri zuzentzaileek talka egiten dute Eusko Jaurlaritzaren esku ez dauden talde batzuen antolaketa ereduarekin. Esaterako, Fiskaltza gertatzen dena daukagu: **lana antolatzeko era fiskalei begira egina dago eta horrek justiziako langileei osasun arazoak sortzen dizkie** (barruti judizialeatik datozen espedienteak garraiatzearen ondorioak, are larriagoak Bizkaian, espediente kopuru handia dela-eta). **Saila ez da gai arazo honi irtenbide egokirik topatzeko**, eta txikitetik urrun, handiagotuz doa kontua.
- Prebentzio Zerbitzuak proposatutako ekintza zuzentzaileak onarturik –oniritzia jasotzen duten ekintza zuzentzaileak, askotan atzera botatzen baituzte edo aipatu ere ez dira egiten- gainean egon behar da ea burutzen diren, noiz eta nola. Fase hau luzatu ohi da, neurria zein den zerbitzu bati edo beste bati dagokiolako konponketa; hauexek dira horrelakoetan parte hartzen duten zerbitzuak: instalazio zerbitzua, pertsonal zerbitzua, prebentzio zerbitzua, obra zerbitzua, bake epaitegiei dagokienez udalak, EAT... **Laburbilduz, jarraipen sistema gaur egun ez da eraginkorra.**

- Gasteizko erregistro zibilean langile bat oso leku desegokian kokatu dute: gailu elektriko inguraturik (inprimagailua, berea eta beste bi ordenagailu, fotokopiagailua...) bakoitzari dagozkien kable eta guzti, eta hori guztia moketaren gainean. LAB arduratuta dago langile horren osasuna dela-eta baina administrazioak dio, mantenimenduko beharginen iritzian oinarriturik, kable horiek ez diotela kalterik ekarriko. Errespetu handiz esango dugu: langile horiek ez daukate behar den prestakuntza eremu elektromagnetikoen inguruan edo osasunaren inguruan horrelakorik esateko. Edo beste “argudio” hau: publikorako txanda zenbakiak banatzen dituzten ordenagailuak urrunera eramateko kostua 2000€koa da, eta administrazioak ezin omen du hori ordaindu. **Arazo honi soluziorik topatu ezean, langile horren osasuna arriskuan ez dagoela dioen txosten tekniko kualifikatua exijitu genuen.**
- Aspaldi honetan, gero eta ohikoak diren eskumuturreko eta eskuko lesioei erreparatu diegu. Batzuetan, osasuna zaintzeko zerbitzuak txostena eman die behaginei grapagailu elektrikoa gomendatuz. Ezta kasu horietarako ere ez du nahi Justizia Administrazioako Zuzendaritzak gailu hori onartu eta badio solairu berean badagoela grapagailu elektrikoa; edo bestela fastener erabiltzeko, baina sistema hori egokia da espedienteak osatzeko, ez aldiz, epaitegitik kanpora joango diren jakinarazpenetarako.
- **Espediente elektronikoa irtenbidea izango litzateke grapagailua erabiltzeko beharra gutxituko lukeelako; halabaina, hori ez da gaur egun gauzatu daitekeen ezer. Beraz, hori heldu bitartean, baliabide egokiak topatu beharko ditugu** langileen osasuna hondatu edo larriagotzen dituztenen orde. Ezin da ontzat eman solairuko beste muturrera joanaraztea epaitegitik irten behar duen jakinarazpen bakoitza grapatu ahal izateko.
- Eraikina inauguratu zuten garaitik Azpeitiko epaitegietan udaldira jasan behar izaten duten beroa dela eta, LABek honako kritika hau egin zuen sailak erakutsi duen temagatik: behin baino gehiagotan jarri dute leihoetan geruza itsasgarria, kanpoko argitasuna urritzeaz gain, tenperatura altua beheartzeko balio ez duena. Hori gutxi balitz, ez dute nahi esan zenbat ordaindu duten, baina oso sistema garestia omen da. **Zuzendariak berak onartu zuen konponketa ez dela egokia izan.** Horiek horrela, hurrengo saioa izango da eraikina makinaren bidez hoztea gauez, sailaren esanetan egunez egoki aireztatzen ez denaren orde.
- LABek behin eta berriz eskatu izan du pisuak manipulatzeko eta garraiatzeko ikasteko prestakuntza. Horri erantzunez, urrian eman dute hainbat herritan *sorbalda norberak zaintzeko* izeneko ikastaroa. Aurretik ere egin zen ikastaro hori eta interesgarritzat jotzen badugu ere, ez da egokitzen pisuak maniatzen lanaldiaren zati handi bat ematen duten langileen prestakuntza berezitura. **Ez gara konformatuko ikastaro horrekin eta ekingo diogu honako beste baliabideak lortu arte: anatomia ikuspuntutik egokiagoak diren gurdiak, lan lekuetako egokitzeak eta lan antolakuntzan aldaketak.**
- Bilboko AMEE eta segurtasuna. Lehen aipatu bezala, autobabesa eta ebakuazio planak ez daude eguneratuak. Bada, testuinguru horretanxe eskatu dituzte auzitegiko mediku batzuek bi neurri zeharo egokiak. Zuzendaritzak, hala ere, pisuzko arrazoirik eman gabe ukatu ditu:
 - Patologia zerbitzuan larrialdi irteera berri bat. Gaur instalazioak dauden moduan, istripu larriren bat gertatzen bada, pasillo hondoan egoten diren langileak harrapatuak gera litezke, irten ezinik.
 - Produktu arriskutsuak maneiatzeko ikastaroak. Zuzendariak trabak jartzen ditu horrelako zereginetan ibiltzen diren langile guztiak ikastaro horretara joan daitezela.

LABek agerian jarri zuen oso arriskutsu gerta litekeela Laborategian gehien bat edozein istripu, bertako langileak ez ezik, eraikineko guztiak egon baitlitezke arriskuan. Eta hori horrela da, neurri handi batean, administrazioak ulergaitza den erabakia hartu zuelako: AMEE hiriburuetako eraikin judizialtako sotoetan instalatzea.